



HITZAR GUNE

Gernika-Lumoko merkataritza, ostalaritza, elkarte eta enpresak euskaraz

2016
02 zk.



ERRENTA AITORPENA

Urtero lez, Gernika-Lumoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundia eta UEMAgaz batera errenta aitorpena euskeraz egiteko kanpaina egin eban. Herritar askok, ohitura dala ta, gaztelaniaz egin ohi dabe, baina apurka-apurka geroz eta gehiago dira EUSKERAZ egitea erabagitzen dabenak. Gernika-Lumoko banketxe gehienek eta HITZARGUNE kanpainako partaide diran aholkulariek ere euskeraz egiteko aukerea eskeintzen dabe. Udaleko Euskera Zerbitzuak banketxe eta aholkularitza enpresakaz alkarlanean fase desberdinetan zein hizkuntza erabili daben aztertu dabe, eta iazkoak baino datu hobeak lortu.

Banketxe eta aholkulariek emondako datuetan nabarmena da ahozko komunikaziotik idatzizkora dagoan alde itzela. Lehenengo hartu-emona euskeraz izan ohi da (%74 inguru), saioan zehar euskeraren erabilera jaisten doa (%58 inguru), eta idatzizkoan nabarmen jaisten da; agiria bera %25ak baino ez baitau euskeraz jaso. Urrutia Aholkularitzako Jazote Zubiaurrek adierazo deusku "jende gazteagoaren artean ikusten dogu errenta aitorpena euskeraz egitea errezagoa dala, berba tekniko horreekaz familiarizatuta dagoz. Guk lehenengo aukera moduan euskeraz eskeintzen deutsegu errenta aitorpena.



ENPRESETAKO PLANAK

Gernika-Lumon Euskera Plana daukien enpresak fase desbardinetan dagoz. Gernika Garbiketak izan zan Euskera Plana martxan ipinten lehena. 9 urte pasau dira Plana martxan jarri ebenetik eta helburu asko bete dabez: ahozko hartu-emonetan euskera da nagusi, eta idatzizko dokumentuak (gutunak, emailak, aurrekontuak, fakturak...) euskeraz bidaltzen deusez bezero euskaldunei, eta horren erakusgarri Bai Euskarari ziurtagiria "Zerbitzua Euskeraz" mailea lortu eben.

Pare bat urte beranduago, orain dala 7 urte, jarri eben martxan Euskera Plana Ekin/Bizkargi Autoak eta Bengozarra Eraikuntza Metalikoak 1969 SA enpresek. Bengozarra Eraikuntza Metalikoak 1969 SA enpresan euskerearen erabilera normalizetan doa, eta ahozkoan zein idatzizkoan gora egin dau euskerearen erabilereak. Bezeroei bialtzen deusezan aurrekontu, faktura...

be gora egin dau euskeraren presentziak, eta azken urteetan egindako beharragaz pozik agertu da Jabi Bengoa, "urteetan egindako beharraren ondorioz emoitzak ikusten ari gara, Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua Euskeraz" mailea lortuta, eta hurrengo urratsa "Zerbitzua eta Lana Euskeraz" mailea lortzea izango da. Ekin Autoak enpresan be hainbat aurrerapauso emon dabez. Enpresan gehiena euskeraz egiten da, langile gehienak euskaldunak diralako, baina ahozkoan eragitea da aurtongo helburua. Euskera ikasten dabilzan ikasle biek eskolez gain, euskerea praktikatzea ezinbestekoa da. Hori dala eta, proiektu barri bat jarri dabe martxan, Txarakasolora bidea, eta honako hau da horren helburua: euskera ikasten dabilzan bi ikasleek, hau da, bidegileek konfiantzazko bi lankide aukeratzea, bidelagunak. Azken honeek euskaldun zaharrak dira, eta helburua azken honeek

ikasten dabilzenei, euskeraz egitea. Bestalde, bidelagunek adierazo daben moduan eurentzat be erronka bat da; "gu euskaldun zaharrak gara, eta bizkaieraz berba egiten ohituta gagoz. Guretzako be erronka izango da, batuaz egitea". Bidegileak euskeraz erantzuten ahaleginduko dira posible dan neurrian. Ekin Autoak enpresak abenduaren 21ean jaso eban BIKAIN euskeraren kalitate ziurtagiria Lehendakariaren eskutik.

Azkenik, Torrezuri Taldea be erakundeko hizkuntzak kudeatzeko planean murgildu da aurton. Egoeraren diagnosa egin eta epe ertainean enpresan euskera arlo desberdinetan gehiago erabilteko konpromisoa hartu dabe.



BIDEOAK, EUSKARA ZERBITZUKO WEB GUNEAN, FACEBOOK BIDEZ...

Oizmendi Telebistagaz alkarlanean, 5 erreportaje egin doguz. Erreportaje horretan HITZARGUNE programan parte hartzen daben hainbat pertsona agertzen dira.

Sartu web orrian eta ikusi herriko saltokiek zer diñoen euskeraren erabileraren inguruan.

OIZMENDI
TELEBISTA

<https://vimeo.com/oizmendi>

<https://www.facebook.com/oizmenditelebista>

HITZARGUNEKO KIDE BARRIAK

HITZARGUNEEn parte hartzea erabagiten daben merkatari eta enpresa kopuruak gora egin dau. Lezeaga, Alkiber, ES Amunaga, Arane jatetxea, Subizian, Trini Jurado Estetika Zentroa eta Urbarri Instalazioak be sinatu dabe Udalagaz hitzarmena.

Negozioan euskara gehiago erabilteko pausoak emongo dabez eta Euskera Zerbitzuak hartutako konpromisoak beteteko laguntzinoa eskeiniko deutse: aholkularitza orokorra, itzulpenak eta bestelako zerbitzuak.

Arlo guztiz desberdinetan jardun arren, argi dago euskera negozioan txertatuteak zerbitzuan eragin positiboa daukala, egungo gizartearen beharren premiei erantzutea da.


ABIXADAN: 433 PARTE HARTZAILE ETA BESTE HAINBAT LAGUN

Abenduaren 27an Gernika-Lumoko kaleetan zehar urtero moduan ABIXADAN lasterketa herrikoia egin zan. Udalaren Euskera zerbitzuagaz eta Kirol Patronatuagaz batera, Hitzarguneko alkarte biren laguntzagaz antolatu genduan. Mendiko ibilbideak diseinatu eta gidari beharrak egiteaz Goi Zale alkarte aurreratu zan eta lasterketea gidatzeaz Gernikako Atletismo elkarte a.

Eguraldia be lagun, 433 parte hartzailetik gora izan ziran bertan. Eta ohiko moduan, hainbat kirol material zotz egin zan eta batzuk opari eta guzti joan ziran.



Argazkiak: Erlantz Ortiz



<https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.herrizki>

HERRIZKI

Busturialdean bizi bazara eta bertako euskera erabilten badozu, aplikazino honek proban jarriko zaitu.

Artez-ek Gernika-Lumoko hizkera lantzeko jolasa sortu dau, mugikorrean doan instalatu eta egizu proba zeure ezagutzea zenbaterainokoa dan ikusteko. Zelan amaitzen da esakera zahar hau?: Dekonak badeko eta eztekonak.... Edo... Gernika-Lumoko baserri-izenak badakizuz?

Deskargatu google play-tik herrizki app-a doan eta jolastu!

XUXEN

Xuxen zuzentzaile ortografikoaren azken bertsinoa aurkeztu dabe Elhuyarrek eta Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldeak.

Hiru zuzenketa mota egiten ditu azken bertsino honek:

1. Oker idatzitako berbak azpimarratzen ditu, eta ordain zuzena proposatuten dau;
2. Euskaltzaindiak onartutako berbak baina Hiztegi Batuan beste forma hobetsi bat daukienak azpimarra berdeagaz agertzen dira.
3. Akats gramatikalak azpimarratu egiten ditu, ordezkua proposatuta.

Sartu helbide honetan eta deskargau doan: <http://xuxen.eus/eu/bertsioak>



BARRIKETAN



Naiara, Gernikara jokatzera etorri zinenean, hizkuntzari jagokonez zoezerk deitu eutsun arreta? Zerk?

Naiara Diez: Askok! Buah! Euskera diferentea... euskalkia belarrira egitea aste pare bat kostau jatan, jaja.

Izaskun, zuk saskibaloira zein hizkuntzatan jokatu izan duzu hasi zinenetik gaur egunera arte?

Izaskun García: Beti euskeraz. Seber Altuben hasi nintzen eta, ikastolan asko bultzatzen da euskeraz jokatzeari, inportantzi asko emoten jako kirola euskeraz egiteari. Orain ingelesez batez be, ze mundu guztiko jokalariek dagoz taldean. Altsasukoagaz, Naiaragaz, eta Maite Mugiragaz beti euskeraz, hori bai, gu hiruron artean bai. Eta ganera, hasieran kanpoko jokalariei atentzinoa deitzen deutse, ze eurek etorten dire Gernikera, pentsetan gaztelaniaz berba egiten dan leku batera datozela... eta gero, jaja, sorpresa.

Elkartean orokorrean euskeraren erabilera zelan ikusten dozu?

Naiara Diez: Nik lehen Iruñan jokatzan nuen eta hemen askoz euskera gehiago egiten da, euskaldunekin nik dana euskeraz, adibidez.

Izaskun García: Kanteran dana euskeraz egiten da, ekipo guztietan. Gero badagoz entrenatzaile batzuk erderaz egiten dabenak, baina jokalariek euskeraz erantzuten deutse . Eta jokalariek euren artean be euskeraz egiten dabe.

Zuk entrenetan dozuzan taldeetan zein hizkuntza erabilten dozue?

Naiara Diez: Dana euskeraz, ganera hizkuntzak hurbildu egiten dau, lotura sortzen da.

Izaskun García: Dana euskeraz, eta gero berba tekniko batzuk ingelesez edo gaztelaniaz be bai, halan ikasi doguz eta.

Zure ustez lehenengo mailako taldearen partidetan megafonia bidezko mezuak euskeraz igortzeak zer abantaila ditu?

Naiara Diez: Narbarmena da eta positiboa. Euskeraren erabilera zaindu nahi dala adierazten dau. Eta ganera horrek be desberdintzen gaitu, kanpotik datozenek holantxe jakiten dabe hemen gaztelaniaz aparte euskerea erabilten dala. Eta Etxeko ikusleentzako hurbiltasuna emoten dau. Hizkuntzak gertutasuna sortzen dau, bertakotasuna; ez dakit. Esango nuke nortasuna be emoten deuskula.

Izaskun García: Estatu osoko taldeak etorten dira eta jokalariai barriz, mundu guztikoak. Megafonia euskeraz erabilerakoan hemen bi hizkuntza ofizial dagozala nabarmentzen da.



Zuen ustez zer beharko litzateke elkartean euskera gehiago erabiltzeko?

Naiara Diez: Egia esan hemen asko erabilten da ni natorren lekuarekin konparatuta; beraz, jendea animatzea edo esango nuke. Kanpotik etorten diran jokalariaiek be gitxieneko batzuk ikasten dabez, agurrak eta... geuk erakusten deuseguz.

Izaskun García: Beheko taldeetako entrenadore guztiek euskaraz jakitea, gitxieneko bat, eta horretarako baliabideak eukitzea ondo legoke. Gauza teknikoetarako eta be bai.



ZIURTAGIRIKO EBALUAZIOAK

Uda ostean, Bai Euskarari ziurtagiriaren berrespen ebaluazinoei ekin geuntsen. Igaz, Gernika-Lumoko 31 enpresak, komertziok eta mota guztietako entidadeek jaso eben ziurtagiria eta barriro be, ziurtagiri horreek berresteko ebaluazinoak egin doguz.

Ebaluazinoak irailetik azarora bitartean egin ostean, ziurtagiriak banatzeko ekitaldia egin zan abenduaren 4an Astran.

27 izan ziran ziurtagiria jaso eben entidadeak.



HITZAR GUNE KOAK

170
merkatariak

51
enpresak

59
elkartek

merkatariak

2klik komunikazioa, @GREEN, Adela Garteiz, Ainhoa, Aitor ileapaindegia, Alboka taberna, Aldatsa, Alkar Kiroalak, Alluntiz, Amilotx, Amutio, Ares Dastalekua, Argia Optika, Argibide, Arrien, Arronategi, Artetxe, Atxike, Auto Cramer, Bake Eder kafetegia, Baraiazarra Soinu Etxea, Bareño, Bazar Txikia, Bed, BEEP Gernika, Bego eta Nerea, Bengo etxea, Berezi, Bidaguren Gozotegia, Bikaña, Bilbao Aseguruak, Boliña, Bonilla, Broncearium, Caserio Jatetxea, Charanga, Chic, Comercial Uriarte, Crespo, Decorev, Deikar, Dionisia, Dominguez Farmazia, Donibane, Duka, Dusi, Eguarditza, Eguren Optika, Ekhiore Parafarmazia, Elejaga Farmazia, Errekamendi, Eskutik Urdaibai, Etxeko Makailoak, Eusebio Joyeros, F2 zapata dendea, Fan's Boutique, Fermin Zapata dendea, Fruitak eta barazkiak Isabel, Garoa interiorismo, Gaubeka, Gerni Garden, Gernika Informatika, Gernika Ortopedia, Gernika Zerraildegia, Gernika-Lumoko Batzokia, Gloss, Gloss-Boca - Boca, Gonzalez Dekorazioa, Gotzone, Gremios Gernika, Gurea Altzariak, Haurren Mundua, Ibaurre, INT Torrealdai, Inter Sport Extreme, Irazabal, Iruskietia bitxi-denda, Iturbe anaiak, Izaga Ileaipaindegia, Izaskun Egurrola, Izaskun harategia, Jabier Harategia, Jare belar-denda, Jasone ileapaindegia, Jesus Mari harategia, Jolly Roger, Jose de Castro Fotodenda, Josten, Juanita Mugartegi, Junira Cafe, Karan estetika zentroa, Kebi, Kikaren Munduan, Kipu, KM.O, Kopi Laster, KOPIKOLOR, Kotoi, L. de Carlos Tabakoak, La Botica de la Abuela, Labakoa, Ladis Design, Lagun On, Legioe Taberna, Lejarraga bitxi-denda, Lezama Taberna, Loiolene Barazkiak, Loreder, Lourdes fruta dendea, Lula, Lumiere, Lurgorri degustazioa, Lurgorri parafarmazia, Mabe, Madariaga, Maite, Makuesgas instalazioak, Mari Karmen estetika-etxea, Mari Tere, Maria Luisa, Marian Orrategia, Marisol fruta dendea, Mikel, Naia, Nere Kabia, Nere Sustriak, Obaba, Ogoño arraindegia, Ojangueren Elektratresnak, Olga, Omaetxebarria Farmazia, Omago, Omago Dietetika, Onena burdindegia, Ospa tabernie, Paraphernalia, Pepi Urdaitegia, Podium Garaikurrak, Quokka, Refan lurindegia, Saloki, San Juan Ibarra, San Juan Loteria, Sandalio, Serigrafia Sestao, Subizian, Sysbat informatika, S.L (Euskaltel), Tandem, Teo autoeskola, Tistel, Todo desde 100, Trenbide, Trini Jurado estetika-zentroa, Twente, Txankan, Txof!, Ugalde Ortopedia, Uleak, Umeak, Uranga, Urdaibai Artezkaritza, Urdaibai Informatika, Uskola Baserri Tresnak, Vic Sec Tindategi Arina, Zallo Barri, Zarra, Zarrandi, Zimela, Zubialde Okindegia, Zurich

enpresak

Abaunza Aholkularitza, Aita Villasante Udal Euskaltegia, Akelarre Ostatu, Algelek SL, Alkiber, Amunategui - Zalabarria Abokatuak, Apraiz, Arane jatetxea, Areza Eraikuntzak, Arronategi Pinturak, Arroyo Banaketak, Arzanegi arquitectura, Arzanegi y Oar Abogados, Auka Bidaik, COR SL Gestoria, E.S Amunaga S.L, Egarriak, Sistemas Comerciales, Exclusivas Gernika SA, Gakoak, Generali Aseguruak, Gernika Inmobiliaria, Gernika Kirolekua, Gernike Kooperatiba, Gondra Abaroa, Gorra Bulkanizatuak, Hiruluger, I. Izagirre SA, Intxausti SA, Irazabal Ardautegia, Jose Luis Kristaldegia, La Caixa, Label desing, Lanpyme, Leoncio Fernandez, Lezeaga, Lur Estudio Inmobiliario, Macias Inmobiliaria, Mallukiza Aroztegia, MRW, Oka informtika zerbitzuak, Pbu Asesores, San Isidro Nekazal Kooperatiba, Sanjo Inox SL, Sendagai, Sorkunde Garcia Finka Administraztailea, Talleres Sanjo, Ttapi-Ttapa, Urbarri, Urrutia Abokatuak, Urrutia Asesoria, Zaindu Fisioterapia Zentrua

elkartek

Ades, Agiri Elkartea, Arkupe Pilota Taldea, Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaileen Elkartea, Emakumeen Futbol Taldea, Etsaiak, Gernika Futbol Sala, Gernika Off Road, Gernika Racing Elkartea, Gernika Saski Baloi Elkartea, Gernika Sporting Futbol Taldea, Gernikako Arku-Tiroketa Elkartea, Gernikako Rugby Taldea, Goizale, Jai Alai, Kosnoaga Igeriketa Elkartea, S.D. Gernika Club, Sociedad Ciclista Gernikesa, Urdaibaiko Rugby Eskola, Aiuri, Andra Mari Korala, Arrano Kultur Elkartea, Bake Leku, Bakearen Arbola, Barrutialde Antzerki Taldea, Busturialdean Euskaraz, Elai Alai Dantzari Taldea, Gaudeamus Korala, Gauteak Kultur Taldea, Gernikako Arte Eskola, Gernikako Bertsolari Eskola, Gernikazarra Historia Taldea, Goizeko Izarra Gazte Taldea, Hilargi Lore, leup Gazteen Elkartea, Kosnoaga Gazte Taldea, Makatz Iturri Taldea, Makazaga Musika Elkartea, Musikeder, Ostagi Abesbatza, Satorgorri, Zantzoa Euskal Kultur Elkartea, Zine Klub, Alargunen Elkartea, Allende Salazar Ikastetxeko Guraso Elkartea, Asinsoc, AVIFES, Elizbarrutiko Karitas, Emakide, Gernikako Emakume Elkartea, Gernika Gogoratz, Gernika-Lumoko Merkatari Elkartuak, Gernikako Ekologi Lan Taldea, Gernikatik Mundura, Ideasur, Odolkideak, Tiris Gernika Sahararen Alde, Turdaibai, Urdaibikers Motorzaleen elkarte, Urdaibaiko Perretxiokozaleak Elkartea

